

HEZKUNTZA IKUSKARITZA

KANPO EKIMENA BATZORDEA



IRAILA 2019

Badakizu...

...zein den Irlandako erlijio-ikastetxeen ehu-nekoa?

...zeri deitzen zaion "trantsizio urtea" Irlandako hezkuntza-sisteman?

...zer urte-tan hasi ziren Europako ikastetxeak ikuskatzen?

AGURRAK

Lankide agurgarriok:

Agindu genizuen bezala, hemen duzue Lucía Barrutia, Alicia Epelde eta Lourdes Orueta gure lankideek ihazko ikasturtean Irlandako ikuskarizarekin batera eginiko "job shadowing" jardueraren laburpena. Txosten osoa eskuragai duzue "R / EMINSPECCION / KANPO EKIMENA BATZORDEA" karpetan. Bertan informazio xeheagoa topatu ahal izango duzue Chantal Manes-Bonnisseau Frantziako ikuskari nagusiak eta Linzeko Johannes Kepler unibertsitateko Herbert Altrichterek, joan den maiatzeko prestakuntza-jardunaldian, aurkezturiko material guztiarekin batera azaldu zuten power pointean. Bi hizlari horiek ikuskatze-lanak zenbait esparrutan duen eraginaz mintzatu ziren, hainbat ikuspuntutatik.

Horrela, gure hiru urtez behingo ikuskaritza-planean jasotako helburuetako bat betetzen ari gara: beste ikuskaritza batzuekiko lankidetza sustatu eta ikuskaritzaren dimentsio europearrean sakontzea.

Agur bero bat.

Jose Angel Ayucar, Ikuskari nagusia.

EDUKIAK:

1- AGURRAK

2- IRLANDAKO JOB-SHADOW JARDUERARI BURUZKO TXOSTENA

3- Adrian Grayren UNDERSTANDING THE DEVELOPMENT OF SCHOOL INSPECTION IN EUROPE ("Europako ikuskaritzaren garapena eta printzipioak") liburuaren laburpena

4- SICI-REN BERRIAK

5- HARREMANETARAKO



2- IRLANDAKO JOB-SHADOW JARDUERARI

Joan den apirilean, EAEko Hezkuntza Saileko hiru ikuskarik *erasmus+ Job Shadowing en Irlanda* izeneko prestakuntza-esperientzia parte hartu genuen, bertako hainbat hezkuntza-ikuskarirekin bat eginik, ondo-ondotik, lan eginez. Hona hemen esperientzia horren alderdirik aipagarrienak:

1- IRLANDAKO HEZKUNTZA SISTEMAREN BEREZITASUNAK

Ikastetxeen gobernantza Hezkuntza eta Prestakuntza Departamentu Nagusiaren, Haur eta Gazteen Departamentuaren eta horien titularren mende dago. Espainian ez bezala, eskualdeetako eta tokiko gobernuek ikastetxeetan duten parte-hartzea oso txikia da, Administrazio Kontseiluek (Board of Management) arautzen baitituzte, euren eskumenak gure Eskola Kontseiluarenak baino zabalagoak direlarik.

Ikastetxe gehienak erlijiosoak dira; bereziki, katolikoak. Ikastetxe gutxi batzuk dira ideario erlijiosorik ez dutenak. Era berean, gero eta hezkidetzako ikastetxe gehiago badira ere, ohikoa da ikastetxeetan ikasleak sexuaren arabera banatzea.

Ikasleari jaiotza-dataren arabera izendatzen zaio maila, baina Espainian egin ohi den bezala, urte naturala kontuan hartu beharrean, ikasturtearen hasiera-data hartzen da kontuan; horren ondorioz, urteko azken hilabeteetan jaiotako haurrak gure sisteman baino maila bat aurrerago kokatzen dira.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-etapak honako hauek dira:

- Haur Hezkuntza - borondatezkoa (3-6 urte)
- Lehen Hezkuntza - 6 ikasturte: (6-12urte)
- Bigarren Hezkuntza:
 - * Junior Cycle – hiru ikasturte (12-15 urte)
 - * Trantsizio-urtea– borondatezkoa (15-16 urte)
 - * Senior Cycle - 2 ikasturte (15/16-17/18 urte)

Bigarren Hezkuntzako ziklo bakoitzaren amaieran ikasleek estatuko azterketak gainditu behar dituzte dagokien titulua eskuratzeko (Junior Certificate eta Leaving Certificate).



“Trantsizio-urteak”, borondatezkoa denak eta gero eta harrera hobea duenak, urtebetez hezkuntza-praktika ugari ezagutzeko aukera ematen dio ikasleari, laneko esperientzia barne, eta azterketa formalik gabe. Ikasturtearen helburua ikasleak heldutasunerako hezte da, garapen pertsonalari, gizarte-kontzientziari eta bizitarako trebetasunei garrantzi berezia emanez.

Irakaskuntza-hizkuntza ingelesa da, edukien bidez irlandera irakasteko proiektua (CLIL) duten zenbait eskola eta institutuetan izan ezik. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleentzat izan ezik, beste guztientzat nahitaezkoa da irlandera irakasgaia.

2– IRLANDAKO HEZKUNTZA IKUSKARITZA

Irlandako Hezkuntza-ikuskaritzak Irlandako ikastetxeetako ikaskuntzaren kalitatea hobetzea du helburu, eta 1998ko Hezkuntza Aktaren eta 2015eko Hezkuntza eta Gaitasunerako Departamentuaren Hezkuntza Ikuskaritzako Praktika Kodearen araudiari jarraiki dihardu lanean.

Ikuskaritzaren eginkizun aipagarrienak hiru hauek dira:

- Ikastetxeen antolakuntza eta funtzionamendua, eskaintako irakaskuntzaren kalitatea eta Hezkuntza ministroak ezarritako araudiaren betetze-maila ebaluatzea.
- Ikastetxe eta irakasleei, hezkuntza-zerbitzuari buruzko gaietan, babesa eta aholkularitza ematea, eta baita Hezkuntza ministroari ere, hezkuntza-politika eta zerbitzua betetzeari buruzko edozein gai delarik.
- Informazioa ematea, kasuan kasu, ministroari, Eskola Kontseiluari, Hezkuntza-patronatuei, familiei eta irakasleei, eta egindako ebaluazioei buruzko txostenak argitaratzea.

Eginkizun horiek lau printzipio nagusitan oinarritzen dira:

- ⇒ Ikasleria ardatz gisa.
- ⇒ Garapena eta hobekuntza.
- ⇒ Erantzukizuna eta kontu ematea.
- ⇒ Elkarrizketa eta errespetuzko konpromisoa.

Ikuskaritzaren egiturari dagokionez, hona hemen nola osatuta dagoen:

- Ikuskari nagusi bat
- Bi ikuskari nagusi atxikiak
- Bederatzi atal desberdin zuzentzen dituzten ikuskari-buruak
- Haur Hezkuntzako ikuskariak (16), Lehen Hezkuntzakoak (55) eta Bigarren Hezkuntzakoak (58)

Irlandako ikuskaritzak bederatzi atal ditu. Horietako lau ataletan hezkuntza-politikak jorratzen dira, eta bakoitzak eremu jakin baten ardura du:

- ◇ Ikerketa eta ebaluazioaren babesa
- ◇ Irakasleen prestakuntza eta politika inklusiboak
- ◇ Curriculuma eta ebaluazioa
- ◇ Haur Hezkuntza

Gainerako bost atalak geografikoki antolatzen dira, lurralde osoa hartuz. Ikuskaritzak dagokion lurraldeko ikastetxeetako ebaluazioa, aholkularitza eta kontrol-lanak hartzen ditu bere gain; gainera, atal bakoitzak hainbat ardura ditu: datuen babesa, Ikuskaritzaren argitalpenak, Europako hainbat programatan parte hartzea, eta ikuskariak bildu, prestatu eta profesionalki garatzea, besteak beste.

Job-shadowing izeneko esperientzian parte hartu genuen ikuskariok 4. atala bisitatu genuen, herrialdearen hegoaldeari dagokiona. Atal horretako ikuskari-burua Pádraig Mac Fhlannchadla jauna da. Zonalde horretako ikuskariek Cork, Kerry, Limerick County, Tipperary South Riding eta West Waterford konterrietako ebaluazio-, aholkularitza- eta kontrol-lana burutzen dute. Horrez gain, atal horrek Europako eta nazioarteko harremanen (ELGE, Europako Batzordea, Europar Batasuneko Hezkuntza Zuzendariak, Eurydice, SICI) zein Europako ikastetxeekiko harremanen ardura darama.

3- HEZKUNTZA IKUSKARITZAK ERABILI OHI DITUEN LAN EREDUAK

Urtero ikastetxeen lagin bat aukeratzen da Ikuskaritzaren Urteko Programarako. Lagin horretan maila zein mota eta egoera guztietako ikastetxeak biltzen dira: indargune esanguratsu nabarmenak dituztenetatik hasi eta hobekuntza garrantzitsua eskatzen duten hainbat arlo duten ikastetxeetara iristen dena. Funtsezko alderdiak ebaluatu eta proposatzeko burutzen diren ikuskapenetan, zuzendaritza eta ikastetxeko langile guztiak elkarri laguntzera behartuta daude, helburua lor dadin.

Hezkuntza Ikuskaritzaren ebaluazioak eredu askotarikoak izan daitezke:

- Ikuskapen intzidentala (Incidental Inspection)
- Ikasgaikako curriculum-ilkuskapena (Subject Inspection)
- Programen ebaluazioa (Programme Evaluation)
- Ikastetxearen ebaluazioa (hainbat eredu: Evaluation of Action Planning for Improvement in DEIS Schools, Evaluation of Centres of Education, Whole -School Evaluation-Management, Leadership and Learning, Whole-School Evaluation)



Ikuskapen mota batzuk, adibidez lehen biak (Ikuskaketa intzidentala eta gaikako Curriculum-ikuskaketa), egun batean, bitan edo hirutan gauzatzen dira, eta beste batzuek oso lan sakona eskatzen dute ikastetxeetan, esate baterako, ikastetxearen ebaluazioak. Ikuskapen intzidentala aurrez ohartarazi gabe egiten da, eta ez darama txosten idatzirik, gainerako ikuskapen guztiak aurrez ohartarazten dira, txosten idatzi publikoa eta ikastetxeko zuzendaritzaren edo administrazio-kontseiluaren erantzunak biltzen dituen eranskin bat daramatelarik (Board of Management).



3.1 IKUSKAPEN INTZIDENTALA:

Ikuskapen mota honek egun arrunt bateko irakaskuntza-ikaskuntza prozesua du ardatz. Honako alderdi hauek balioztatzen dira: eskolak prestatzea, erabilitako metodologia, ikasgelako giroa, ikasleen parte-hartze maila, zuzentzeko modua, ikasleen aurrapena ebaluatu eta erregistratzeko modua. Gerta liteke ikuskariak ikasleei euren koadernoak, ariketa-liburuak eta bestelako lanak eskatzea ere.

BISITAK IRAUTEN DUEN BILTARTEAN	Ikuskapen-jarduera Normalmente, lo hace un inspector/a, en un día	Ez da aurrez ohartarazten
		Zuzendaritzarekin biltzea
		Ordutegiaren kopia jasotzen da
		Ikuskatuko diren eskolen zirriborro bat prestatzen da (ikastetxeko zuzendaritzari helarazten zaio)
		Eskolak behatzea: *Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua *Ikasleekiko harremana eta haien lanen azterketa
		Euren jarduera ikuskatu zaien irakasleekin elkarrizketa-tzea
		Zuzendaritzarekin elkarrizketatzea
Ez dago txosten idatzirik.		

3.2 IKASGAIKAKO CURRICULUM-IKUSKAPENA

Pozesu honek curriculumeko irakasgaiak ditu ardatz, banan-banan hartuta. Ikastetxe bakoitzean nola antolatu eta ematen diren aztertzen da, jardunbide egokiak hautemateko, eta beharrezkoa balitz, hobekuntza-proposamenak egiteko.

Honako alderdi hauek hartzen dira kontuan:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta ebaluazioa
- Ikasgaiaren eskaintza eta ikastetxearen antolaketa
- Programazioa eta eskolen-plangintza

BISITAREN AURRETIK	Ikuskaritzaren jarduera	Bost egun lehenago ohartarazten zaie Hezkuntza Kontseiluari, ikastetxeko zuzendaritzari eta titularrari, telefonoz eta posta elektronikoz bidez. Ikuskariak zuzendaritzarekin baieztatzen du bisita.
	Ikastetxearen jarduera	Zuzendaritzak fitxa bat betetzen du ikastetxearen informazioarekin.
		Zuzendaritzak/Departamenduak ikasgaiaren inguruko informazioa biltzen duen galdetegia betetzen du.
		Irakasleen ordutegiak eta, eskatuz gero, ikasgaiaren programazioa bidaltzen dira ikuskaritzara. Ebaluazio- eta absentismo-erregistroak eskura egon behar dute, bisitak irauten duen bitartean.
BISITAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN	Ikuskaritzaren - jarduera	Zuzendaritzarekin biltzea
		Eskolak behatzea:
		Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua behatzea
		Ikasleekiko elkar-eragina
		Lanaren azterketa
		Ikuskaritako irakasleekin, banan-banan biltzea
	Normalean, ikuskari bat, bi egunetan. Z	Departamentu-buruarekin biltzea
		Dokumentuak aztertzea. Programazioaz gain, espero da irakasle bakoitzak ikasleekin egindako urteko edo hiruhileko lana erregistratuta edukitzea (Ez da espero, aldiz, behatu beharreko eskola bakoitzaren programazioa individualik)
		Zuzendaritzarekin biltzea (ondorioei buruzko ahozko aurkezpena)
		Departamentuarekin biltzea (ondorioei buruzko ahozko aurkezpena)
		Tostenaren zirriborroaren prestaketa. (1400 hitz)
BISITAREN ONDOREN	Ikastetxearen jarduera	Tostenaren zirriborroa jaso ondoren (bost eguneko epean), ikastetxeak hamar egun dauzka alegazioak aurkezteko
	Ikuskaritzaren jarduera	Txostena departamenduaren webgunean argitaratzen da. Ikastetxearen alegazioak osagarri gisa gehitzen dira.

3.3 PROGRAMAREN EBALUAZIOA

Programa-ebaluazio eredia erabiltzen da zenbait programen kalitatea eta eraginkortasuna ebaluatzeko, eta ikastetxeetako irakaleei eta zuzendaritza-taldeari aholkularitza eta laguntza eskaintzeko.

Ikuskatzen diren programak askotarikoak dira. Bigarren Hezkuntzan, besteak beste, Junior Certificate Shool Programme izenekoak (Curriculum aniztasunaren antzekoak) eta Transition Year programme delakoak.

Lehen Hezkuntzan, programa hauek ebaluatzen dira: hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako hornidura (SEN Programme)

BISITAREN AURRETIK	Ikuskaritzaren jarduera	Hamar egun lehenago ohartarazten zaie Hezkuntza Kontseiluari, ikastetxeko zuzendaritzari eta titularrari, telefonoz eta posta elektronikoz bidez.
		Ikuskariak zuzendaritzarekin baieztatzen du bisita.
		Familiantzako galdeketak bidaltzen dira.
		Behatuko den ikasleria aukeratzen da.
	Ikastetxearen jarduera	Zuzendaritzak ikastetxeari buruzko fitxa bat betetzen du.
		Zuzendaritzak/departamentuak galdeketa bat betetzen du, orokorrean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen antolaketari eta, bereziki, hautatutako ikasleei, haien ordutegiari eta baliabideei buruzkoa dena.
		Zuzendaritzak elkarriketarako hautatutako ikasleen gurasoen baimenak biltzen ditu.
BISITAK IRAUTEN DUEN BILTARTEAN	Ikuskaritzaren jarduera	Zuzendaritzarekin biltzea . Familien baimenak eta galdeketak biltzen dira. Lan-ordutegia adosten da.
		PT taldearekin biltzea
		HPBko taldearekin biltzea
		Eskolak behatzea (PTko ikasgelan eta ohikoan daudenean)
		Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua behatzea
		Ikasleekiko elkar-eragina
	Normalean, bi ikuskari, bi/hiru egunetan	Bere lanaren azterketa
		Behatutako irakasleekin, banan-banan biltzea.
		Dokumentazioa aztertzea
		Orientazio-departamentuarekin biltzea.
		Zuzendaritzarekin biltzea (ondorioak ahoz aurkeztea)
		Orientazio-departamentuarekin biltzea (ondorioak ahoz aurkeztea)
		Txostenaren zirriborroa prestatzea (1400 hitz)
BISITAREN ONDOREN	ikastetxearen jarduera	Txostenaren zirriborroa jaso ondoren (bost eguneko epean), ikastetxeak hamar egun dauzka alegazioak aurkezteko.
	Ikuskaritzaren jarduera	Txostena departamentuaren webgunean argitaratzen da. Ikastetxearen alegazioak osagarri gisa gehitzen dira.

3.4 IKASTETXEEN EBALUAZIOA

Arestian aipatu den bezala, era honetako ikuskatze lanetan hainbat eredu jarraitzen dira, hala nola: DEIS eskoletako– ingurune ahuletako ikastetxeak- hobekuntzarako jardun-plangintzaren ebaluazioa (Evaluation of Action Planning for Improvement in DEIS Schools), ikastetxeen ebaluazioa (Evaluation of Centres of Education), ikastetxeen ebaluazio globala (Whole-School Evaluation) eta ikastetxeetako kudeaketa, lidergo eta ikaskuntzaren ebaluazioa, (Whole -School Evaluation-Management, Leadership and Learning).

Segidan, “Ikastetxearen ebaluazio globala- kudeaketa, lidergo eta ikaskuntza”ren zenbait alderdi zehaztuko ditugu.

3.4.1 “IKASTETXEAREN EBALUAZIO GLOBALA – KUDEAKETA, LIDERGOA Y ETA IKASKUNTZA”REN EREDUA

Ikuskaritzak honako alderdi hauen inguruko ebaluazioa egin eta informazioa ematen du:

- * **Irakaskuntza eta ikaskuntza**
Ikuskaritzak balioesten ditu irakasleak ematen dituen eskolen prestaketa, irakasteko erabili dituen ikuspuntuaren eraginkortasuna, ikasgelako giroa eta ikasleen dinamika eta antolaketak ikasketak-jarduerak burutzen diren bitartean. Ikuskaritzak ebaluatzen ditu ikasleen ezagupen, trebetasun eta jarrearen aurrerapen-maila eta zenbateraino dagoen inplikaturak bere ikaskuntza-prozesuan. Ebaluazio-irizpideak eta ikasleen aurrerapena berrikusi eta ebaluazio-txostenak eta espedienteak aztertzen dira. Ikuskaritzak ikasleen artean eragin dezake, eta lanaren hainbat adibide azertu.
- * **Ikasleen ongizatea babestea**
Ebaluazioak neurtzen du, bestalde, ikastetxeak nola kudeatu eta lantzen duen ikasle guztien ongizatea. Hau da, balioztatzen da ikastetxeak egiten duen ahalegina hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, gizarte-ingurune ahuleko ikasleak eta gutxiengo baten kide direnak ikastetxearen parte senti daitezten. Talde-integrazioarako zein laguntza indibidualerako erabiltzen diren hezkuntza-baliabideak balioztatzen dira. Bestalde, ikastetxeak eskola, familia eta komunitatearen arteko elkarlanerako dituen baliabideak aztertzen dira.
- * **Lidergo eta hezkuntza-kudeaketa**
Ikuskaritzak ikastetxearen titulartasunaren eginkizuna, eta zuzendaritza-kontseiluaren osaketa, eginkizuna eta funtzionamendua aztertzen ditu, kontseilu horrek hezkuntza komunitateko kideekin duen komunikazioa, baliabideen kudeaketa eta ikastetxearen garapen eta hobekuntzarako lehentasunak barne. Halaber, balioztatzen da ikastetxeko zuzendaritzaren eta kudeaketa-taldearen barne-lana. Kontuan hartzen da lidergo, ikastetxe eta ikaskuntza mailan.

Badira balioztatzen diren beste alderdi batzuk, hala nola, ikastetxearen plangintzari eta hobekuntza-planari buruzkoak, ikastetxeak autoebaluazio-planetan parte hartzea, betiere ikastetxe bakoitzaren testuinguru berezia kontuan hartuz.



BISITAREN AURRETIK	Ikuskaritzaren jarduera	Hamar egun lehenago ohartarazten zaie Hezkuntza Kontseiluari, ikastetxeko zuzendaritzari eta titularrari, telefonoz eta posta elektronikoz bidez.
		Ikuskariak zuzendaritzarekin baieztatzen du bisita.
		Familiantzako galdeketak bidaltzen dira.
		Irakaleei jakinarazten zaie nola bete behar dituzten on-line galdeketak.
	Ikastetxearen jarduera	Zuzendaritzak ikastetxeari buruzko fitxa bat betetzen du.
		Zuzendaritzak familien galdeketak biltzen ditu.
BISITAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN	Ikuskaritzaren jarduera	Zuzendaritzarekin biltzea.lan-ordutegia adosten da. Goizero jakinaraziko dira egunean egingo diren jarduketak.
		Zuzendaritzarekin eta irakasle-taldearekin biltzea.
		Zuzendaritzarekin, irakasleekin, zuzendaritza-kontseiluarekin eta gurasoen ordezkariarekin biltzea.
		Ikasleei galdeketak banatuko zaizkie.
	Normalean bi ikuskari, hiru egunetan	Eskolak behatzea:
		Irakakuntza-ikaskuntza prozesua behatzea
		Ikasleekiko elkar-eragina
		Bere lanaren azterketa
		Behatutako irakasleekin, banan-banan biltzea.
		Dokumentazioa aztertzea
Txostenaren zirriborroa prestatzea (2500 hitz)	Behatutako irakasleekin eta zuzendaritzarekin biltzea (ondorioak ahoz aurkeztea)	
BISITAREN ONDOREN	Ikastetxearen jarduera	Txostenaren zirriborroa jaso ondoren (bost eguneko epean), ikastetxeak hamar egun dauzka alegazioak aurkezteko
	Ikuskaritzaren jarduera	Txostena departamenduaren webgunean argitaratzen da. Ikastetxearen alegazioak osagarri gisa gehitzen dira.

3.4.2 “IKASTETXEAREN EBALUAZIO GLOBALA- KUDEAKETA, LIDERGOA ETA IKASKUNTZA” EGITEKO IKUSKARITZAREN TXOSTEN EREDUA.

Ikuskaritzak jardura mota honetan egiten duen txostenak atal hauek biltzen ditu, 2.500 hitzetan:

- Haurrak babestea (Haurren babesari buruzko legeak / adierazpenak / prozedurak betetzen diren egiaztatzea)
- Ebaluazio-dataren eta burututako jardueren aipamena.
- Eskola-testuinguruari buruzko deskribapen laburra
- Ondorio eta proposamen/gomendio nagusien laburpena
- Ondorio eta proposamen/gomendioei buruzko xehetasunak:
 - * Ikasleen ikaskuntzaren kalitatea
 - * Irakaskuntzaren kalitatea
 - * Ikaslearen ongizaterako laguntzaren kalitatea
 - * Lidergoaren eta kudeaketaren kalitatea
 - * Ikastetxearen autoebaluazioaren kalitatea



Aldi berean, txostenak biltzen du aipatutako atal horien gaitasun-mailak azaltzeko taula bat (QUALITY CONTINUUM), taula osatzeko deskribapen bat eta dagokion adibidea, deskribapen modura, ematen direlarik. Azkenik, ikuskaritzak eginiko txostenari ikastetxeko Board of Management delakoaren erantzuna erantzen zaio. Erantzun-txosten horretan jasotzen dira ikastetxeak ikuskaritza-txostenari eginiko iruzkinak eta ikuskaritzaren esku-hartzearen ondoren jasotako proposamen eta gomendiak

inplimentatzeko jarraipen- edota hobekuntza-planak.

3.4.3 IKASTETXEENTZAKO KALITATE EREMUA

2016an Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako “kalitate-eremu” bana argitaratu ziren. Eredu horietan eskolako jardunbide egokiak zer diren ulertzeko proposamen bat eskaintzen da. Horrela ikastetxeek euren jardunbideak aztertu eta zer egiten duten ondo jakin dezakete, eta, bide batez, antzeman dezakete ikastetxe-jarduerako zer alderdi garatu behar dituzten ikasleen ikaskuntza-esperientziak eta emaitzak hobetzeko. Dokumentuak ebaluazio-gunea eta balioztapen-mailak eskaintzen ditu. Hona hemen bere egituraketa:

1. Arloak: ikastetxe baten eginkizunari dagokionez, funtsezko bi arlo zehazten dira:
 - Irakaskuntza eta ikaskuntza
 - Lidergoa eta kudeaketa
2. Eremuak: Arlo bakoitza eremutan sailkatuta dago. Eremuak arloko alderdi desberdinak dira eta elkarlotuta daude.
3. Mailak/estandarrak: Eremu bakoitzean hainbat maila/estandar dago eta ondo funtzionatzen duen ikastetxe bateko jokabide eta jardunbideen ezaugarrietan oinarrituz adierazten dira.
4. Praktikaren adierazpena: maila/estandar bakoitzerako bi maila (adierazle) izendatzen dira, praktika eraginkorraren adierazlea eta oso praktika eraginkorraren adierazlea.

Dokumentu hau diseinatu da irakasle eta zuzendariak irakaskuntza- ikaskuntza-ikuspegi interesgarri eta eraginkorrak abian jartzeko erabil dezaten eta ikastetxeetako lidergoaren kalitatea hobetzeko. Ikuskaritzak erabili ohi du bere jarduketan ikastetxeko-kalitatearen berri emateko ere. Ebaluazio-ereduek esparruko elementu aipagarrienak hartzen dituzte kontuan eredia bideratzeko. Horrela ebaluazioen sendotasuna garatzen da, aldi berean, esparruaren erabilera malgua egiten delarik.

Dokumentu publikoa denez, laguntzen die gurasoei eta beste zenbait alderdi interesdunei ere ikuskaritzaren txostenen baliospenak ulertzen. Esparru honetan partekatzen den hizkuntza arruntak ikastetxeko kalitateari buruzko zentzuzko elkarrizketak ahalbidetzen ditu irakasleen, hezkuntzako profesionalen, gurasoen, ikasleen, eskola-komunitateen eta komunitate zabalagoen artean.

INFORMAZIO GEHIAGO: "R-EMINSPECCIÓN-KANPO EKIMENA BATZORDEA

3- Adrian Grayren UNDERSTANDING THE DEVELOPMENT OF SCHOOL INSPECTION IN EUROPE (“Europako ikuskaritzaren garapena eta printzipioak) libururen laburpena

SICI erakundeko Batzorde Betearazleak liburu bat argitaratzeko premia ikusi zuen, non azalduko den 200 urtean hezkuntza-ikuskaritzak Europan izan duen garrantzia, hezkuntzaren hobekuntza lortu eta era horretan gure lanaren garrantziari buruzko eztabaidari laguntze aldera. Orain arte ez da inoiz horrelako lanik egin, eta bertan nabaria da erakundearen eragina 1800. urtetik gaur arte.

Atalez atal azaltzen dizkigu burututako eginkizunen garapena eta ezaugarri nagusiak:

1. Atala: 1850era arte

Atal honetan azaltzen da ikuskaritza 1600. urtean hasi zela lanean hainbat herrialdetan, administrazio-hierarkia zuten estamentu erlijiosoen ardurapean. Irakasleen jarduera zen ardatz nagusia, garai hartan. 1850. urte aldera, aditu ugari zioten ikuskaritzak eskolak hobetzen laguntzen zuela.

2. atala: 1850-1918

Bigarren-hezkuntzako eta industria-eskoletako espezialistak gehitzean, kidegoaren profesionalizazioa gauzatu zen. Ikuskaritzak azterketa-sisteman parte hartzen zuela eta, arazoak sortu ziren. Ikuskaritza helburu politiko eta abertzaleetarako erabiltzeak ere gatazkak sortu zituen elizarekin, sozialistekin eta talde minoritarioekin.

3. atala: 1918-1945

Ikuskaritza behar ez bezala eta modu orokorrean erabiltzea erregimen ez demokratikoetan (Errusia edo Alemania). Bigarren hezkuntzako ikastetxeak ebaluatzeke eskumen berriak sortu behar izan dira. Eskolak eta ez bereziki irakasleak ebaluatzeke interesa handitu da. Ikuskarien artean emakume kopurua hazi egin da. Ikuskaritzaren zeregin berria sortu da, irakaskuntzari buruzko ideia berriak zabaltzea, hain zuzen ere.

4. atala: 1945-1980

Herrialde askotan “ikuskaritzak” gutxiespen-kutsua du. Erakundeak, bere zenbait zeregin direla eta, beste estamentu batzuekin lehiatu behar du. Bestalde, uko egiten die eskola-lidergoari buruzko joera berriei. Oro har, publikoarekiko elkarreragin gutxi dago, eta askotan gobernuek alde batera uzten dituzte.

5. atala: 1980-2000

Oposizio politikoaren mehatxupear sentitzen dira, baina, eskolen autoebaluazioaren kalitatea eskasa denez, eutsi egiten diote. Ahalduz dira estatu mailako datu-sistema berrien bidez. Liberalismoak eta eskola-kudeaketarako sistema berriak kontu emateko premia sortu du. Ikuskaritzaren txostenak “ikastetxe-merkatua”rentzako tresnak dira. SICI erakundea sortu da, jardunbide egokiak partekatzeko. Europar Batasuna edo Munduko Bankua bezalako erakundeek ikuskaritzaren garrantzia azpimarratu dute.

6. atala: 2000. urtetik aurrera

Balio erantsia, eskola emaitzak eta antzeko kontzeptuak sortu dira. Garrantzi handiagoa ematen zaio eskolari, modu globalean, norbanakoei (irakasleei) baino. Barne- zein kanpo-ebaluazioaren egitekoak argitu dira. PISA sortu da lehiakortasun-elementu gisa.



4- SICI-REN BERRIAK

Aurreko alean, zehatz-mehatz azaldu genizuen Belgraden, Servian, 2018ko azaroan burututako batzarraren edukia. Batzarraren gai nagusia ikuskaritzaren eragina izan zen. Laster, azaroan, Londresen izango da hurrengo batzarra, eta bertan ezagutzera emango dira 2019ko gai nagusiari (ikuskaritzaren berrikuntzari) buruzko ondorio nagusiak, hau da, gai hori lantzeko burutu ziren hiru bilera hauetako ondorioak: Sofian (otsailean), Madeiran (maiatzean) eta Dublinen (urrian).

Hiru bilera horietan erabili eta aurkezturiko materiala SICIren webgunean eskura dezakezue: <http://www.sici-inspectorates.eu/Activities/SICI-Workshops>

Halaber, lagungarri izan ditzakezue bere newsletteren argitaratzen diren berriak: <http://www.sici-inspectorates.eu/Contact-us/EC-Minutes>



5- HARREMANETARAKO

Honako hau da KANPO EKIMENAREN webgunea:

<http://www.euskadi.eus/informacion/dimension-europea-de-la-inspeccion-en-la-educacion/web01-a2hikus/es/>



Iradokizun postontzia :
huisg004@euskadi.eus

